

XEBASTIAN IHIDOY ANTZERKIA

« XEBASTIAN MINTZA HADI » ikuskizuna



« *Bizia ospatu behar da* »

Idazlea : David Ondars

Zuzenketa : Monika Chohobigarat

Kanpoko laguntza : Philippe Ondars, Michel Foucher

eta elgarrizketatuak izan diren guziak

2025eko URTARRILA

PERTSONAIK

1. BORROKA ETA GERO...

XEBAXTIAN

2. BEREIXKETA

MATTIN

GEXAN

TTOTTE

PETTAN

GAXUXA

MAGDALENA

TEREXA

ARTZAINA

ARDIAK

MARILYN

JAKES

JEAN

MAIXAN

JEANNE

XAN

JAMARIE

3. ERREPIKAK

MARTZEL

POPOL

XANTXO

ARDIAK

4. ELIZAKO EZKILA

AMA

TROUCHOT

SUSSAUTE

BERLINGOT

5. ...ETA GERO PASTORALA

ZIRTZIL1

ZIRTZIL2

ZIRTZIL3

ZIRTZIL4

1. BORROKA ETA GERO...

Musika : "Bakezaleak" - 3 minuta. Besta giroa da : Ostatu bat, baso ainitz, dantzak, mozkorrak, etb... Hiru gizon sartzen dira, bakoitza mobileta baten gainean. Borroka bat sortzen da fite, musika gelditzen da.

XEBAXTIAN sartzen da. Maleta bat eskuan du.

XEBAXTIAN. Hau dea Armendaritze ? Oi, oi... (*publikoari*) Hemen, herriko botzek kaka nahasi dute herrian. Ainitz lekutan bezala. Alde batetik, auzapezaren alde direnak, beste aldetik bigarren listaren alde. Baina hemen ez da fini ! Besta berri kontra direnak edo alde, euskaldunak, bidea gudronatuaren alde, pilotariak, gorriak, xuriak... Oi, oi, oi... Gaizo ama... jakin balu ! (*ateratzen da*)

KANTONIER. Jean Jacquek embauchatu du Xebaxtian. Laurogoi eta zortzian edo bederatzi... Duela urte bat, erran dezagun Armendaritzen dela. Arozgoan ari dira : ardien estekatzekoak egiten dituzte, iturgintza ere pixka bat... denetarik alo. Jean Jacquek dio langilea dela... baina astelehen goizetan ez dela bere gain kondatu behar.

JEANNE. Eskolan apartamendu bat atzeman dakote. Han bizi duk, haurren artean, bakarrik. Herriko etxea parean du. Epizeria ondoan. Eliza eta Elizaia ostatutik bi minutetan oinez. Funtsean, gehiago ikusten diagu Elizaian elizan baino...

JEAN. Sortzez, ezterenzubitarra duk. « Etxoinia » du sortetxea. Ezterenzubiko gainekaldean kokatua den etxe bat da, bihurgune hertsia eta luze zombaitzu pasatu eta gero. Bidea kokina duk ! Autoz mozkorra sartzen delarik kasu egin behar da !

XAN. 30 urte ditu. Gazte duk nahiz eta zaharrago iduri duen. Guk bestetan ezagutu diagu, besta maite baitu. Pantalona ipurdian zintzilikan hor, eskarnietan ari hemen, mozkorra han, herrestan nun nahi.

TTOTTE : Zapartingarra !

MAIXAN. *Herria* kasetan artikulu batzu idazten zuen. Antzerkia egiten dik ere, eskuin eta ezker : Ezterenzubin, Larzabalen, Eihalarren... Izigarri maite du, talendu haundikoa da. Hiru antzerki idatzi ditu ere: *Oraiko haurrak*, *Ene biziak Zer balio du* eta *Elizako ezmila*

PIXTA. Edaten ez duelarik mutiko herabea duk eta batzuetan kasu ! Edana delarik, artetan, gaitzikorra. Gaitzitzen delarik, bipila jartzen duk eta pikoak bota ditzazke. Hortaz ohartzen gituk bere muztatxa milikatzen duelarik. Tenpesta utzi behar da pasatzerat.

TTOTTE : Zapartingarria !

KOMITE. Etxez etxe ibiltzen duk : bricolagea bat hor, konpontze bat han. Aperitifa edo batzutan afaria eskaintzen dakogu. Gaizoa, bakarrik duk. Umore handiko gizona duk, istorio kondatzaile paregabea. Irri egiten diagu. Louis de Funes iduri du. Bainan Louis de Funes muztatxa batekin.

TTOTTE : Zapartingarria !

JAKES. Eta nola kasik herritarra konsideratzen baitugu eta harekin untsa akomeatzen girela denak. Beheitian, goizeko 5etan, untsa berotu eta.. ideia zozo bat handitu zako...

XEBAXTIAN. Hemen teatroa egiten baginu ?

DENEK. (*Irriz*) Armendaritzen ? Teatroa ? Zozoa hiza ? Geldi hadi...

Denak ateratzen dira

XEBAXTIAN. Eta zergaitik ez ? Ez gituk Euskal Antzerki Taldeen Biltzarran, ados ! Ditugun gaitasunekin ariko gituk. Guk, etxekoz etxeko eginen diagu ; gure maneran, zirtokan, betidanik egin dugun bezala. *Hiruak bat, Biperbeltx, Zentzu gabeak* eta beste antzerki tropak bezala... Artisau lanetan ariko gituk : Gure jokoak arno xuriaren gustu karatsa ukanen dik eta emanaldiak Ricard-a bezala dirdiratuko du ! Berexia dela herria hemen ? Antzerkiak berriz juntazen balu ? Bai jaun andereak, hemen, plaza hortan, herritar hauekin tropa bat sortuko diagu eta teatroa eginen ! Ikusiko duzue...

2. BEREIXKETA

MATTIN. Ez dik eginen

GEXAN. Eginen dik

MATTIN. Ez dik eginen

TTOTTE. Kasu, uste dute ez duela eginen bainan eginen dik !

GEXAN. Ikusiko duk eginen duela

MATTIN. Erraiteaz geroz, ez dik sekulan eginen, pentsa !

GEXAN. Pentsa ? Pentsa ? Hik badakik zer pentsatzen dien ?

MATTIN. Ez nuk haren buruan bainan segur nuk ez duela eginen

GEXAN. Ah bai, ta nundik duk segurtamen hori ?

MATTIN. Segur nuk, hola duk, ez dik eginen eta puntu...

TTOTTE. Kasu, eginen duela uste dute bainan ez dik eginen !

MATTIN. Ixil hadi hi ! (*Pettani*) Hik zer pentsatzen duk ?

PETTAN. Ez dakiat eginen duenik, bainan egiten badik, eginen dik eta segur nuk eginahalak martxan ezarriko dituela, egingarria izaiteko, egiazki egia egiaztatzen dautzuet...

MATTIN / GEXAN / TTOTTE. Mantxut ?

PETTAN. Ez dakiat... Bainan egiten badik, nik eginen diat !

GEXAN. Hik eginen duk ?

MATTIN. Ez duk eginen !

PETTAN. Ikusiko duzie eginen dutala !

MATTIN. Geldi hadi ! Ez duk eginen !

GEXAN. Ezagutzen diat, ez dik eginen

TTOTTE. Kasu, eginen duela uste dugu bainan...

MATTIN / GEXAN / PETTAN. Hago ixilik !

Gaxuxa, Magdalena eta Terexa banku baten gainean jarriak dira.

GAXUXA. Eginen dixi !

MAGDALENA. Zer *eginen dixi* ! ?

GAXUXA. Eginen dixi ! Delako, Xebaxtian horrek... Jean Jacquen langilea... Teatroa abiatuko dixi hemen !

MAGDALENA. Teatroa hemen ? Xaude ixilik !

GAXUXA. Hola entzuna dixit !

MAGDALENA. Polita izanen duxu, to !

TEREXA. (*kexu*) Ixo !

GAXUXA. Etxez etxe pasatzen duxu, jendeak biltzeko. Jadanik hamar bat pertsona bildu dixi... gure semeak barne.

MAGDALENA. Xure semeak barne ? Oi, oi, ez holakorik, ez hemen !

GAXUXA. Ez dixi balio aipatzea ! Ez dixie eginen !

MAGDALENA. Ez ! Ez duxu izanen ! Xebaxtian hura, ez dixiu ezagutzen... entzuna dixit arrunt abertzalea dela !

GAXUXA. Ixil xite !

MAGDALENA. Ba. Kasu ez dituenetz gure gazteak harekin bildu nahi

GAXUXA. Jesus, Maria eta Josepe !

MAGDALENA. Eta gainera... maite dixi !

GAXUXA. Ba, ba, ba, ba, ba. Alabak kondatu zataxun, joan den ibiakoitzean, hain mozkorra zuxun eta, burua salda barnean lokartu zela, seko.

MAGDALENA. Bo, bo, bo ,bo, bo...

GAXUXA. Ba, ba, ba, ba, ba !

TEREXA. (*kexu*) Ixo !

MAGDALENA. Oraiko haurrak... Eta zer uste dute ? Jendeak etorriko direla haien ikusterat ?

GAXUXA. Chapitoan egin nahi dixi. Besta denboran, uztailan

MAGDALENA. Ez dituxu sekulan prest izanen

GAXUXA. Ez, ez, ez, ez, ez !

MAGDALENA. Bo, bo, bo ,bo, bo...

TEREXA. (*kexu, orroaz*) Ixo ! Elizan girela ez zirezte ohartu ez ?!

GAXUXA. Zer egin dugu Jainko onari ?

TEREXA / GAXUXA / MAGDALENA. (*kantuz*) « Jainkoaren Bildotsa, zuk kentzen duzu munduko bekatua : urrikal, Jauna.

Jainkoaren Bildotsa, zuk kentzen duzu munduko bekatua : urrikal, Jauna.

Jainkoaren Bildotsa, zuk kentzen duzu munduko bekatua : emaguzu bakea »

Hiru emazteak joaiten dira komunionea hartzerat, hiru ardi sartzen dira ber mementoan. artzain batek bere ardiak deizten ditu.

ARTZAINA. (*kantatzen du. « ene maite kattalin » airearekin*)

« Ardiak deizten, ardiak deizten, ardiak deizten goizetik

Ez diat beste egitekorik, ardien deiztia baizik

Gauean beti, salda on bat, telebista aintzinean

Bihar berriz, kafe on bat, telebista aintzinean

Ondoan den, auzo horrekin, samurtu gituk *tant pis*

Bere bide, bide ustela (*kantuz gelditzen da*) Zenta nik, bidea gudronatu dezaten galdegin baitnuen herriko etxeari, bainan auzo pitili horrek behiak pasatu behar zitiela beraz nahiago zuela harrizko bidea atsiki dezagun bainan nik ene C15arekin bide garbia nahiago diat eta gainera badu aspaldi auzapezari galdegina dakotala bainan auzapezak gero, beti gero... (*kantua berriz hartzen du*) samurtuak, behin betiko, bide txar batengatik

Ardiak deizten, ardiak deizten, ardiak deizten goizetik

Ez diat beste egitekorik, enoatzen nuk bakarrik »

MARILYN, JAKES sartzen dira. *Marilyn haurdun da, Jakes pixka bat mozkorra.*

MARILYN. Eh bé oh ! Ez naiz enoatuko !

JAKES. Zer dun ?

MARILYN. Ez duka ikusten ? Ah, untsa duk aperitifan egoitea...

JAKES. Zerbaitetan laguntzen ahal dutan ?

MARILYN. Ez gizona !

JAKES. Zer dun egiteko ? Erran !

MARILYN. Etxe hori konpondu lehen lehenik. Ez hiz ohartzen bainan sekulako bordela duk hemen. Ondotik, janaria prestatu, oihal horiek josi, dekorak landu, Espace Copirat pasatu behar diat zuen testuak fotokopiatzeko, zer nahi badiat egiteko eta pentsatzeko...

JAKES. Pausa hadi, ez dun on ttipiarentzat. Dekorak ene gain. Xebaxtianekin brikolatzen ari gitun, zer nahi manatu daut egiteko. (*Xebaxtian agertzen da*) To, hor dun ! (*Xebaxtiani*) Zer ari haiz hor ? Ez hintzan Ezterenzubitik pasatu beharra ? Dia, bitxia haiz ! Hik zerbait baduk untsa ez denik...

XEBAXTIAN. (*Marylini*) Untsa hiza?

MARILYN. Untsa ? Bai, ez nuk kanbiatu, osorik nuk beti.

XEBAXTIAN. Badakin, ñiñiarentzat zerbaitetan laguntzen ahal badinat?

MARILYN. Hik ? Gaizoa, ez datak ene tripa atxikiko dakidanez ?

XEBAXTIAN. Erraiten ahal dautzuet gauza hau : Haurdun den emazte baten momentuak, ez ditut sekulan-santan, hoin hurbiletik bizi ukan !

MARILYN. Hein batean hala ere...

JAKES. Zer duk Xebaxtian ? Hik baduk zerbait kezkatzen huena ?

XEBAXTIAN. Atzo ICBrat berriz deitu nien, Euskal Kulturarat. Arrapostua eman dautate.

JAKES. Eta beraz ?

XEBAXTIAN. (*kexu*) Ez daukute zentima bat ere emaiten gure teatroarentzat, haiek gabe egin beharko diagu eta eginen ! Ai urdeak !

Gizon bat orroaz sartzan da. Telefonoa hartzen du eta zenbakia egiten. Beste eskualdean zonatzen du.

JEAN. (*sartzean*) Ai urdeak ! Alu zikinak ! Meskilak ! (*telefonoko karneta hartuz*) Karneta nun dut ? (*zenbakia eginez*) Errespeturik ez da mundu huntan ! Alu zikinak ! Ah, ikusiko dute !

Deitzen du. Beste eskualdean jotzen du, Maixanek hartzen du.

MAIXAN. Allo ?

JEAN. Kenzkizue zuen marroak gure pentzetik, dena xehatzen dute

MAIXAN. Nor dut telefonoan ?

JEAN. Badakin arras untsa nor dunan telefonoan : Gure pentzea ! Zuen betiko marro madarikatuak !

MAIXAN. Ah ! Hi hiza ? Ados, ados, senarra igortzen diat berehala

JEAN. Bai igor ezan ! Ez baitun lehen aldia, joan den aldean ere...

MAIXAN. (*mozten du*) Igortzen diat !

JEAN. Eh be zer ari hiz ? Habil abisatzerat...

MAIXAN. Ez baduk mozten nola nahi duk abisa dezadan...

JEAN. Moztuko dinat eta joanen hiz !

MAIXAN. Ez ! Ez datak eni erranen zer egin behar dutan ? NIK moztuko diat eta NI joanen nuk...

JEAN. NIK deitu dinat beraz NIK erabakitzen dinat noiz moztuko dutan. Aldiz HI joanen haiz...

MAIXAN. Bainan NIK diat abisatu behar, beraz, NIK diat prisa eta HIK...

Haria mozten da.

JEANNE / XAN. Bainan zer ari hiz ?

JEAN / MAIXAN. Hau auzo mekanika !

JEANNE / XAN. Ah ! Harekin hintzan ?

JEAN. Haren marro pitoek gure pentzea xehatzen dine !

MAIXAN. Gure marroak haren pentze sakraturat pasatu dituk !

JEANNE / XAN. Lasai ! Egun batez, akomeatu beharko duzue !

JEAN / MAIXAN. Sekulan !

JEANNE / XAN. Alta, beharko duzue...

JEAN / MAIXAN. Zendako ?

JEANNE / XAN. Biek izena emana baituzue teatroa egiteko Xebaxtianekin !

JEAN / MAIXAN. (*harrituak*) He ?

JEANNE / XAN. Bai !

JEANNE. Lehen auzoarekin samurtuak ? Ez diagu hola segitzen ahal !

XAN. Hoinbeste denbora pasatzen dun heien jorratzen, beti pil-pilean haiz !

JEANNE. Eta hori zergaitik ? Lehengo istorioarengatik !

XAN. Badu bederen hamar urte herriko botz horiek pasatu direla !

JEANNE / XAN. Dixeritu beharko duzue !

MAIXAN. Zer ? Repetizioneak elgarrekin egin beharko ditugula?

JEAN. Horrek erran nahi du, taula gainean elgarrekin ari izan beharko dugula ?

JEANNE / XAN. Bai, denak elgarrekin !

Bakotxak hartzen du bikote kidea eta ateratzen dira.

JEANNE / XAN. Are, untsa pasatuko da, ikusiko duk/n... *(partitzean solasa segitzen dute)*

Jamarie berriz sartzen da, fotokopieuzari hurbiltzen da. Xebaxtian sartzen da.

XEBAXTIAN. Iep! Untsa hiza ? « Etxahun » antzerkiaren kopien biltzerat heldu nauk

JAMARIE. Adio Xebaxtian ! Uste nuen Marie Jok errekuperatu behar zituela ?

XEBAXTIAN. Badakik hire arreba haurdun dela, beraz haren lan kargaren arintzea entseatzeko nuk... Eta aperitifa badiat Donapaleu aldean

JAMARIE. *(irriz)* Ah hori duk ! Haren karga arintzen eta hire arinkeria kargatzen. Hor dituk fotokopiak. 15 aldiz 28 orrialde, 336 kopia.

XEBAXTIAN. Metxi ! Marie Jo txekearekin etorriko duk ordaintzeko

JAMARIE. Bai, bai trankil. Noren izenean ezartzen diat faktura ? Atzeman duzue zuen troparen izena ?

XEBAXTIAN. Bai atzeman diagu !

JAMARIE. Zer du izena beraz ?

XEBAXTIAN. Elgarrekin

Xebaxtianek fotokopiak errekuperatzen ditu eta deneri banatzen (Gexani, Pettani, Magdalenari, Terexari, Artzainari, Jakesi, Jeani, Maixani)

XEBAXTIAN. Hor duzue beraz testua. Lehen emanaldia uztailan diagu. Laupabortz hilabete ditiagu aintzinean errepikatzeko.

Errolak banatzen ditu, parean erreakzioak. Bakotxaren errola imitatzen du.

(*Gexani*) Hik JOANES eginen duk : 40 bat urthe, Etxahunen auzo eta adixkidea
(*Maixani*) Hik ENGRAZI eginen dun, 45 bat urthe, Etxahunen emaztea. (*Jean-i*) Hik
EGIAPHAL: 40 bat urte, Etxahunen auzo eta etsaia. Amorosak zirezte biak.
(*artzainari*) Hik, ERRETORA: zahar, handi, boz apha idor batekin. (*Jakesi eta
Pettani*) zuek PETTE eta MANE: 30 bat urteko mutilak, nesken erhoaztea maite
duzue, (*Magdalena eta Terexari*) zuek : dendariak, ama eta alaba (*Elgarri so egiten
dute denek*). Ostiral atsetan errepikatuko diagu herriko etxean, eta testua etxean
ikasi beharko duzue. Ados gira ? (*parean baieztatzen dituzte*). Ederra izanen duk !
Bizia ospatuko diuk !

DENEK. (« *ene maite kattalin* » *airearekin, partitzean*)

Ez sinetsi, orain hor diagu, teatroa elgarrekin

Testu hori, buruan sartu, nola egiten da jadanik?

Ikasi behar, ikasi behar, ikasi beharko diat

Buruan sartu, buruan sartu, ikasi beharko diat...

3. ERREPIKAK

Ostatuan dira, « amène à boire » kantatzen. MARTZEL, POPOL eta XANTXO ihiztariak dira. Denak mozkorrak dira, XANTXO comptoirean lokaturik dago.

MARTZEL. Errak, Xebaxtian, beraz ? Armendaritzen, teatroa? Nola doa afera ?

XEBAXTIAN. Eh be... Ari gituk !

POPOL. Prest izanen zirezte uda huntako ?

XEBAXTIAN. Zendako ez gintazke prest izanen ? Errepikatzen diagu, karraskan ! Hangoak, serioski ari dituk, ez dituk hemen bezala...

POPOL. Zoin duzue emango?

XEBAXTIAN. Etxahun ! Aita Larzabalena.

MARTZEL. Ta nork egiten dik Etxahun ?

XEBAXTIAN. Nik ! Zendako ?

MARTZEL eta POPOL. (*harriturik*) Hik ? Etxahun ?

POPOL. Badakika testua ? Hor, ez duk espanturik !

MARTZEL. Jakizak ! Hor baduk zer ikasteko !

XEBAXTIAN. (*mahainaren ganean, testua ziztuan*) «Landetako lurrek, girixtino maiteak, laphar tzarretarik garbitu behar duten bezala, halaber arimako hedadurek behar dute laphar tzarretarik, erran nahi baita bekatuetarik, noiztenka garbitu. Eta laster Phazko baita, orai da tenora jina, zuen arimen beren lapharretarik garbitzeko... Phentsatzen dut herriko artzainaren oihua entzuna izanen dela, eta balitz arthaldean ardi errebelatu zonbait, hek ere Jainkoaren bordarat berriz itzuli nahiko dutela... Halabiz...». Holaxet zen, igandean, gure jaun erretoraren predikua... Ardi errebelatuak... Hori hiretzat zian, Etxahun. Bazakitek, bazakitek...

MARTZEL. Baietz ! Badakigu, badakigu...

XEBAXTIAN : Beraz ? Testu hori ? (*momentu bat*) Ederra zian ?

POPOL. Estonatuko gaituk beti !

MARTZEL. Uztailan zela erran duk ?

POPOL. Biba gure Xebaxtian ! Eroetan eroena !

XEBAXTIAN. Bai, eta hi zozoetan zozoena !

MARTZEL. Hire predikuaren ikusterat jinen gituk !

MARTZEL / POPOL / XANTXO. (*Xantxo iratzartzen dute. Gurutzearen seinalea eginez*) Burua xut, tripa hori bete, Beso horrekin edan eta bestearekin edan, guk errepikatzen : Amène à boire Etxegoien !

Denak irriz, kantatzen segitzen dute. GAXUXA eta bere haurrak ondoan. Denek otoitza errekipatzen dute.

GAXUXA / PETTAN / GEXAN. « Orroit zaite, o Birjina Maria, guziz urrikalmendutsua, ez dela egundaino aditu, nehor zure ganat ihesi egin duenik, zure arartekotasuna eskatu duenik, izan dela laguntzarik gabe utzia.

Fidantzia berak sustatua, nik ere, Birjina, birjinen ama, zure ganat laster egiten dut, zure ganat heldu naiz : auhenez nago bekatorosa zure aintzinean. Ez ditzatzula arbuia ene otoitzak, Jainko Semearen Ama, bainan bai entzun eta onhets amultsuki. Amen »

GAXUXA. Are, joan oherat orain !

PETTAN / GEXAN. Bai. Gau on ama !

Gaxuxa joaiten da. Pettan eta Gexanek testua ateratzen dute.

PETTAN. Joana duk ?

GEXAN. Bai joana duk !

PETTAN. Are, nik ETXAHUN irakurtzen diat, hik JOANES. Atzo utzi ginuen lerrotik berriz abiatzen nuk.

GEXAN. Bai, jaka !

PETTAN. *ETXAHUN*: Errak... Sarri kofesatzerat joan gogo diat... Behar nauk argitu; zer behar zioiat erran aphezari?

GEXAN. *JOANES*: Hi kofesatzerat!... To, errazkik hire bekhatuak!..

PETTAN. *ETXAHUN*: Ez dakiat ordian nola erran! Ez dakiat zoin burutarik has!

GEXAN. *JOANES*: Ba, ez dik balio burua haustea hortakotz... Errak aphezari: Jauna, ez dakit kofesatzen... Lagun nezazu othoi...

PETTAN. *ETXAHUN*: Bo, eta aphezak zer galdatuko zaitak?

GAXUXA. (*kanpotik*) Galdatuko dautzue oherat joaitea !

GEXAN. (*Apalago*) JOANES: To, galdatuko dauk, lehenik ean othoitzak egin dituzkanez.

PETTAN. *ETXAHUN*: Zonbait «Agur Maria» eta hola erraiten ditiat ba... Ean hortaz kontent izanen den?...

GAXUXA. (*kanpotik*) Ez dakiat apeza kontent izanen den bainan, ni hasteko ez ! Orain testu horiek utzi eta zoazte lo egiterat ! Bihar, aitak lana badu zuendako!

PETTAN / GEXAN. Bainan teatroa ikasi behar dugu !

GAXUXA. (*kanpotik*) Teatroak, ez du fisik balio ! Zozokeriak dituk horiek ! Denbora balin baduzue, baliatuko duzue hamar *Agur Maria* egiteko.

PETTAN. (*harritua*) Hamar ?

GEXAN. Bederen, ez diagu testuaren beharrik, gogoz baitakigu...

PETTAN. Nik APEZA egiten diat eta hik SERORA ?

PETTAN / GEXAN. (*partitzean, imitatuz*) Agur Maria, graziaz betea, jauna da zurekin, benedikatua zara...

Bi etxeetan. Jeanek deitzen du. Beste eskualdean jotzen du, Maixanek hartzen du.

MAIXAN. Allo ?

JEAN. Errepikatzen ahal dinagu bi minuta !

MAIXAN. Nor dut telefonoan ?

JEAN. Badakin arras untsa nor dunan telefonoan : delako teatroa... Egiaphal eta Engrazi... Hi Engrazi eta Ni Egiaphal...

MAIXAN. Ah ! Hi hiza ? Zer nahi huen beraz ?

JEAN. Errepikatzen ahal dinagu lehen eszena ?

MAIXAN. Telefonoz ?

JEAN. Zergaitik ez ?

MAIXAN. Ados. Beraz, NI hasten naiz eta HIK segitzen duk

JEAN. Ez ! HI hasten haiz eta NIK segitzen dinat !

MAIXAN. Gauza bera erraiten diagu !

JEAN. Ah... arrazoin dun (*irriz, jenatua*) barka, lehen alde da teatroa egiten dutala... badakin, ez dun...

MAIXAN. (*mozten dako*) Hasten naiz ! *ENGRAZI*: Ea, gizona kofesatzerat joana dut...

JEAN. *EGIAPHAL*: Ikusia nuen joaiten, igandeko arropaz beztitua. Errazu, Engrazi, errazu garbiki, zuk baduzu zerbait ene kontra.

MAIXAN. *ENGRAZI*: Nik?.. Ez... Zertako?

JEAN. *EGIAPHAL*: Ba, ba... Atzo oraino azkenekotz... Etzara pasatu plazarat joaiteko, gure phentze handiaren aldetik... Ni han nintzen... Nahi nautzun zerbait aipatu... Bainan, zuk bertze bidea hartu duzu

MAIXAN. *ENGRAZI*: Ba, ixtilen gatik

JEAN. *EGIAPHAL*: Ez eni holakorik erran... Lehen ere baziren ixtilok gure phentze handiaren sahetsean... Errazu, jakiterat jina naiz... Zerbaitetan huts egin deutzuta? Badakizu zonbat zaitudan maite!..

JEANNE / XAN. Norekin ari haiz telefonoan ?

MAIXAN / JEAN. Testua errepikatzen dugu auzoarekin

JEANNE / XAN. Ez ditut batere maite istorio horiek !

MAIXAN / JEAN. Bainan, kalma hadi !

JEANNE / XAN. Nola kalma ?

JEANNE. Gauaz testua errepikatzen duk, gero ostiraletan elgarrekin errepikak eta orain testua telefonoz ikasten... Ez diagu gehiago elgar ikusten !

XAN. Ez dun hori baizik aipatzen : Etxahun, Xebaxtian, Engrazi eta Egiaphal, Egiaphal eta Engrazi... eta hi eta ni ?

JEANNE. Orain auzoarekin berriz lotura egin duk! (*faltsuki*) Xanpion ! Dena untsa doa ; igande goizetan kafearen hartzerat gomitatzen ditiagu, gure seme alabak orain lagunak dituk, biba zuek !

XAN. (*Maixan imitatuz*) Zer irriak Xebaxtianekin ! Oh zer irriak egin ditugun errepetizonean ! Ni ere irringarria naiz, ni ere mozkortu nintake ziminokerietan aritzeko !

JEANNE. Haren marroak ez dituk gehiago gure pentzetik pasatzen, ez gituk nehorekin samurtzen... (*erdi nigarrez*) Enoatzen nuk !

XAN. (*triste*) Untsa ginen lehen, ez haut gehiago ezagutzen orain... Hautu bat egin beharko dun : Teatroa edo ni !

MAIXAN / JEAN. Oi oi ! Barkatu, utzi behar diat/dinat senarra/andrea arrunt erotzen hasia zait !

Telefonoa mozten dute, bakotxak hartzen bere senarra/andrea berekin.

MAIXAN / JEAN. Are, untsa pasatuko da, ikusiko duk/n...

Partitzean solasa segitzen dute. Ohean, bikote bat. Gizona mugitzen da.

MARILYN. Bainan zer duk hola mugitzeko ? Gauerdia duk eta ez diat oraindik lorik egin ! Haurra doi doietan lokarrarazi diat.

JAKES. Deuse, deuse... Kafea litaik... Hets-kin begiak !

MARILYN. Hetsiak ditiat bainan iduri du pedalo baten gainean girela !

JAKES. Ulertu dinat ! Lokartzen nun... lokartzen nun !

Momentu bat. JAKES berriz mugitzen da, MARILYNek argia pizten du.

MARILYN. Bon orain aski ! Zerk arranguratzen hau ? Erran ezak, bestenez pedaloetik botatzen haut !

JAKES. (*aitortzen du*) Testu horrek arrunt nahasten daude, uste dinat ahantzi dutala! Ez dakinat zendako bai erran nakon Xebaxtiani ! Puta ! (*Ohearen azpian hartzen du testua*) Errepikatzen ahal diagu bi minuta ?

MARILYN. Bainan gizona, gauerdia duk, ñiñia lokartua duk eta testua nahi duk errepikatzea ? Orain ?

JAKES. Bai ! Fite egina dun !

MARILYN. Bainan, arrunt mentsa hiz ! Utzak hori eta bihar goizean eginen diuk

JAKES. Bi minutako afera dun, ez nun lokartuko bestenez !

MARILYN. Eta ñiñia iratzarrarazten balin baduk?

JAKES. Harekin egonen nun gau guziz nahi badun ! (*MARILYNek baimenezko keinu bat egiten dako. Testua pasatzen dako*) Tori ! Nik PETTE egiten dinat eta hik MANE.

MARILYN. (*irakurtzen du, batere tonoa emanez*) « MANE: Ha, ha, ha... izitu haizela ahatik »

JAKES. Bainan, eman tonu pixka bat, otoi...

MARILYN. Erran datak testua ikasi behar huela eta ez jokoan sartzeko !

JAKES. (*ufatuz*) Segitzen dinat... « PETTE: Tiro bat entzun diat... Eta, gero halako intzirin batzu. Hor, zerbait gertatu duk... »

MARILYN. « MANE: Emak bakia, muthikoa... Eta, haugi Gaztelondorat... »

JAKES. « PETTE: Ez zakiat, hor zer gertatu den... Egiaphaleneko landa buruan... »

MARILYN. « MANE: Ba, berdin norbait, basurderi edo azkoneri tiroka... Zer nahi duk izan dadien bertzerik gauaz? » (*testutik ateratzen*) MANEK arrazoin du, arrun zozoa duk PETTE hura ! (*trufatuz*) Zozoarena egiten duk ?

JAKES. Errola bat dun, besterik ez !

MARILYN. Untsa hautatu dik !

JAKES. Konzentra hadi pixka bat ! Bi minuta baino gehiago pasatuko dinagu bestenaz ! (*ufatuz*) Segitzen dinat « PETTE: Ba... Eta intzirin hek? »

MARILYN. 'MANE: Bon, utz-aitzik horiek burutik bere gisa... Ilhargi ederra diaguk... Aufa!.. Biba libertatea eta amodioa... Goazen, Gaztelondoko maiteen harrotzerat... (*testutik ateratzen berriz*) Ah bon ! Eta nork egiten ditu Gaztelondoko neskak ?

JAKES. Bainan bakea eman pixka bat ! Ez da hori galdera ! (*ufatuz*) segitzen dinat...

MARILYN. Ah, ez dela hori galdera ? Aski duk Gaztelondoko neska gazteeri amestea, fite lokartuko hiz hola ! (*testua berriz ematen dako eta lokartzen da*)

JAKES. (*Gizona xut egoiten da, kexu*) Xebaxtian, Xebaxtian, bilduko dik !

ARTZAINAK ardiak deizten ditu, testua ondoan eta errepikatzen du.

ARTZAINA. *ERRETORA*: Hire egitatea, egitate larria duk... Bainan, kondenamendu handienetik salbu hintazkela iduritzen zaitak. Ez baituk nahitarat hil Mane... Pette... Joanes. Kasu egizak, Mane... Pette... Etxahun, zer erranen dukan... Bihar goizean, herriko buruzagiekin aiphatuko diat hire harathunata... Gorde-hadi, bihar artino. Eta, zer solas ibili dugun hitaz, jinen nauk bihar erraiterat. Habil Mendialderat... Mendialdeko arotzak... artzainak izanen dik hire doia lasto bere bordan... Aski diok phitsik ez salatzea... Berria ez duk berdin berehala hedatuko haraino.

MAGDALENA, TEREZA eta ufatzaila sartzan dira ber momentuan.

TEREXA. « ALABA: Ha ama... Zer nahi ikasi dut... Gertakari bat ditaken nahasien omen da.... Hainitz salsa izanen omen da hor.

UFATZAILE. Gorago mintzatu beharko dun, ez da entzuten !

MAGDALENA. AMA: Zer ba?...

TEREXA. ALABA: Batzuek diote Egiaphalek hil duela Joanes... Pette eta Mane ere saltsan omen dira....

UFATZAILE . « ...Etxahun jaun andreak ere ba. »

TEREXA. ALABA. Etxahun jaun andreak ere ba.

MAGDALENA. AMA: Bo Etxahun!... Segur naun Egiaphalek duela Joanes hil....

UFATZAILE. (*momentu bat. Ufatzen dako*) « Ez dakit ! » « Ez dakit ! »

TEREXA. Nik ere ez dakit, ufazak testua !

UFATZAILE. Bainan testuan dun : « ez dakit ! »

TEREXA. Ah ados ! «ALABA : Ez dakit bainan, Egiaphal, jandarmek, berekin, joan ondoan, libratu omen dute.... »

MAGDALENA. AMA: Berdin dun, berdin... Hura dun hor hobenduna Egiaphal zikin hori omen zabilan bethi Etxahunen emaztearen ondotik... Eta segur nun, Joanesek salatzen zizkonan Etxahuni denak.... Etxahunek Joanes zinan bere emaztearen zaintzale... Hortaz ohartu dun Egiaphal, eta hartako din hil Joanes.

TEREXA. ALABA: To... So egizu leihotik... Jandarmak

UFATZAILE. Ez ditun jandarmak bainan bai publikoa, etortzen ari ! Ez diagu gehiago denborarik errepikatzeko ! Zoazte kulizetarat, denak prest ? Teatroa hasiko dugu ! (*martelularekin jotzen du*) ETXAHUN antzerkia ! Etxahunen azken monologoa !

Etxahunen azken monologoa bozgailuetan hedatua izanen da. Xebaxtianek joko du azken parte hori. Beste aktoreak, inguruan jarriko dira, monologoa bukatzen da eta agurrarendako elkartzen dira. Publikoa agurtu eta gero kulizetarat joaiten dira. Besta egiten dute.

XEBAXTIAN. (*besteeri*) Hori zian antzerkia ! laufa ! Orain, ez gaiten hortan geldi! Toberak segidan eginen ditiagu, Behiak uztarturik, Salaberri bordatik jaustean : *cortège-a (pesta berriren musika kantatzen du)* Hori lehenik eta gero Pastoral bat (*pastoral imitatzen du*). Bai lagunak, hemen pastoral bat eginen diagu !

BESTEETIK. Pastoral bat ? Zozoa hiza ? Geldi hadi...

XEBAXTIAN. Eta zer ? Bizia ospatu behar diagu !

MAIXAN. Eta horrela hasi zen gure abentura. Uztailako gau batez. Chapiteau batean. Publikoan, laurogoi pertsona. Parean : gu. Hamabost lagun.

GEXAN. Ordu batzuekiko aktore bilakatu ginen. Kanpoko kritikak, gure barneko dudak, bi orduz hori dena airatu zen ! Botzak isildu, antzerkia mintzo.

MAIXAN. Hasi aintzin, Elizaian baso batzu hartu genituen, botza berotzeko. Taula gainean : jokoa. Agerraldien artean : Gérard eta Pierre, Xebaxtianen anaiak, kantuz... Publikoa agurtu eta egina zen. Ondotik, bestak iraun zuen ilargi xortak edan arte. Gaualdi magikoa izan zen !

ARTZAINA. Eta horrela segitu ginuen : bizia ospatzen !

MAIXAN. Ondoko urtean HIRU ZIREN antzerkia eman ginuen, eta ondokoan MUGARI TIRO, Aita Larzabalen piezak beti. Xebaxtian, bultzazaile eta taula zuzendaria beti.

ARTZAINA. 93an Telesforo de Monzon idazlearen BEHORRAREN OSTIKOA muntatu ginuen. Eta 94an Xebaxtian Ihidoy berak idatzitako pieza bat eman behar ginuen : ELIZAKO EZKILA.

MAIXAN. Eman behar ginuen.... ez baitzen guk espero ginuen bezala gertatu.

Besta bukatzen da. Ikusten dugu Xebaxtianek testua jotzen.

4. ELIZAKO EZKILA

Xebaxtianek bere testuak ditu eskupean. Bere ama agertuko da, ber mementuan Jakes eta PETTAN beste aldean agertzen dira. Lanean ari dira (meuleuse..) Zentroan, haur batzu jolasten dira (paper zimurtuekin ari dira, ur batailak, autoak...)

XEBAXTIAN. Iep ! Badea norbait ?

AMA. To ! Hor hiza ?

XEBAXTIAN. Bistan dena hemen nizala!

AMA. Untsa erortzen haiz, lagunduko nauk oihalen plegatzen

Oihalak plegatzen hasiko dira. Momentu bat

XEBAXTIAN. Ama, usaiako xuriketak ekarri dauzkitxut

AMA. Ados. Gero eginen dizkiat, igandean berriz pasatuko hiz?

XEBAXTIAN. Bai, bai usaian bezala.

AMA. Hire pantalon grisa atxiki diat, alimaleko tatxa baitzuen ipurdian, ez diat kendu ahal ukan. Jainkoak daki nun ibiltzen haizen !

XEBAXTIAN. Jainkoak ez dixi jakin behar eta ez jakinen !

AMA. Xebaxtian, beharko duk egun batez zentzatu: lana, besta, berriz besta, beti besta... Ez duk on hiretako !

XEBAXTIAN. Ama, aski denbora ukanen dixit pausatzeko Jainkoaren ondoan izanen nintzelarik

AMA. Zozokeririk ez erran otoi !

Momentu bat

AMA. Haristoyen etxean untsa pasatzen duk beti ?

XEBAXTIAN. Bai, bai. Gero ta lan gehiago badixiu... Daniel gaztea gurekin ari duxu beti. Laster emboxatuko dixiu hain segur.

AMA. Bon, bon, hobe !

XEBAXTIAN. Badakixu aurten, *Elizako Ezkila*, emanen dutela armendaritzekoek

AMA. Zer ? Hik idatzi huen pieza ?

XEBAXTIAN. Bai, ene pieza.

AMA. Untsa, untsa... Kasu emak, oihalak lurra hunkintzen dik

Beste eskualdean. Jean Jacques-ek deitzen du, Xebaxtian beste aldera joanen da.

JAKES. Sebastien ! Nun dut berriz putiko hura ?

XEBAXTIAN. Hor nuk nagusia !

JAKES. Ez zakala « nagusia » erran, ene izena badiat !

XEBAXTIAN. Ados nagusia !

PETTAN. (*irriz*) Zer pitoa...

JAKES. Ibiakoitz atsaldean, xantier ttipi bat badiat, Heletan. Jinen hiz ?

XEBAXTIAN. Bai bistan dena ! Behar balin bada, etorriko nuk !

PETTAN. Hola aratsean, itzuliño bat eginen diagu Heletako ostatuetan

JAKES. Jakizak ! Bon, zer tenore duk ?

PETTAN. Hamekak eta erdiak !

JAKES. Oraino oren bat eta gero jaun'erat (*jaune'erat*) pastuko gituk

XEBAXTIAN. Egun batez hiltzen bainaiz, Ricardean itorrik, hil nahi nuke

JAKES. (*irriz*) Hi mentsa hiz bestenaz !

Beste eskualdean, ama deitzen.

AMA. Xebaxtian ! (*Xeaxtian ahozkatuz*)

XEBAXTIAN. Bai, ama ! (*joaitan*) Gaixo ama...

AMA. Bainan nun hintzan ? Ez hizala batere etxean egoiten ahal? Telefonatu die igandeko pestarendako, 10etan hitzordua duk Etchegoinen

XEBAXTIAN. Ados ! Bon, joan behar dixit !

JAKES. Sébastien !

AMA. (*gurutzearen seinalea eginez*) Jesus, Maria eta Josepe ! Haur horrek beldurtzen nau !

XEBAXTIAN. (*joaitan*) Gaixo ama... Bai nagusia !

JAKES. Sébastien, astelehenean joan beharko diagu Iholdirat, tapisa bat saltzerat, jinen haiz enekin ?

XEBAXTIAN. *(ez du arraposturik emaiten) ...*

JAKES. Astelehen atsaldean zozoa ! Badakiat asteburua kargatua dukala ! Astelehen goizean ez dik balio jitea ere, lo egizak !

XEBAXTIAN. Atsaldean jinen nuk, problemarik gabe !

AMAK pantalon bat altxatuko du, piezak eta billetak lurrerat eroriko dira.

AMA. Bo, bo bo... Xebaxtian ! Beha ezak ! Hori atzeman diat hire pantalonon sakeletan *(sosa erakusten dako)* Harzkik ! Beharba aski izanen duk ogi edo yogurta puxka bat erosteko

XEBAXTIAN. *(irriz)* Bai yogurta, bai...

AMA. Igandean berriz pasatzen bahiz, pateak eta lukinka batzu ezarriko dauzkiat prest presta

XEBAXTIAN. Bai, igandean pastuko nuxu. Ez adiorik ama ! *(partitzean)* Gaixo ama...

AMA. Bai kasu emak ! Gaixo Xebaxtian...

JAKES. Sébastien !

HAURRAK. Xebaxtian ! Xebaxtian !

Xebaxtian erdian gelditzen da. Haurrek auto bat ematen dakote.

XEBAXTIAN. Igande goiza Ezterenzubin. Autoan sartu, gibelean ni. Oren bat. Aparkatu. *(usaintzen du)* Hemen sekulako besta eginen diagu. Comptoirera hurbildu. « Hiru ricard ta hik zer hartzen duk ? Tenez 100 francs pour la tournée ». Mahainean jarri. Arno botoila bat. « Berdin zait, salda eta txitxi puxka bat untsa dituk ». Kantu bat, bi kantu. Ostatu bat, bi ostatu. « To ! Hemengo aldi ? » Manatu, berriz manatu. « Nik pagatzen diat turnada, ez zakala deus atera ». Pagatu. « Pisile nuk ». Kanpoan hotza. Berriz sartu. Matelak berotzen, atorra idekitzen. « Eta hor Catalogne beste eskualdean, Ihidoy ? Nik : bai. Ohartua hiza ? Nik: Zer ? Xoxoa hizala ! » Irriak. Azken trago bat, azken istorio bat. « Ez adiorik ! » Autoan berriz sartu. Gibelean ni, lokaturik. Oren bat. Panoak eta panoak begien aintzinean. Iduri bizi guziko oroitzapenak pasatzen ari... Ene biziak zer balio du...

Arrabots handi bat. Irulegiko irratia : Pantzo Irigaraien botza bozgailuetan. Elizako jende koru bat formatzen da eta jendeak aintzinatzen dira. Kantu, auresku...

5. ...GERO ETA PASTORALA

ZIRTZIL1, ZIRTZIL2, ZIRTZIL3, ZIRTZIL4 sartzen dira.

ZIRTZIL1. Xebastian joan zaku bainan teatroa ez da fini !

ZIRTZIL2. Xebastianek altxor bat utzi dauku, mugimendu bat, impulso bat, indar bat. Gaur arte bizirik den ezin hautsizko arbola.

ZIRTZIL3. Ondoko urtean, Gilom Irigoyen etorri zaukun gure saltsan, bi antzerkiekin :

ZIRTZIL 4. *Apetitu on eta Mandotik astorat*

ZIRTZIL3. Gero, Larzabalen piezak berriz hartu genituen, bere pertsonai famatuekin

ZIRTZIL2. Aldi berean, Veronique Challet-k haur korala muntatu zuen eta haurrendako antzerkia. Bere gitarra edo teklatuari esker, euskaraz kantatzen ikasi genuen

ZIRTZIL1. 1999an ikusgarriendako gela bat eraiki zuten herrian. Ernest Alkhatek asmatu izenarekin : ZUENTZAT. Ondoko urtean, irri egin nahi ginuen.

ZIRTZIL3. Eta Baigorriko Nafarroaren Egunean, untsa berotu eta, aurkitu ginuen gure idazle berria : Pantxo Irigaray !

ZIRTZIL1. Idazle pipadun baigorriarrak bere pertsonai koloretsuekin jin zizaukun !

ZIRTZIL3. Berari esker, irri egin dugu. Ainitz !

ZIRTZIL4. Publikoak ere. Ainitz !

ZIRTZIL3. Eta jendea etorri da. Ainitz !

ZIRTZIL1. Urtero antzerki berri bat idazten zaukun eta horrela segitu du...

ZIRTZIL1 / ZIRTZIL2 / ZIRTZIL3 (*testua banatzekoa*). Fotokopieuzak urtero egiten zuen bere lana ; testu eta testu, kopiak eta kopiak. Paper eta paper. Errolak eta errolak. Pertsonaiak. Testu ikasiak. Testu inprobisatuak. Ziloak. Esaldi batzu ahanziak, batzu xehatuak. Bainan segitu dugu. Urtero euskarazko antzerkia emaiten barnekaldeko herri galdu batean. Belaunaldiz belaunaldi parentesia eder hori babestua izan da.

ZIRTZIL2. Anartean, bistan dena, Armendaritze, Euskal Herriko herri ttipi bat izanki, borrokek segitu dute. Eta besta batzu ere...

ZIRTZIL1. Antzerkiak antologiako apairu batzu ekarri dauzkigu : Esteben Bordan Itsasun, Saindun Irulegin, Koxenian Urepelen...

ZIRTZIL2. Eta herriko botzak.

ZIRTZIL3. Herria berexia berriz...

ZIRTZIL1. Baina historia beti errepikatzen baita

ZIRTZIL2. Mugimendu bat berriz piztu zauku, impulso bat, indar bat, ezin hautsizko arbolak bere adarrak berriro erakutsi dauzkigu. Duela 35 urte, Xebaxtianek hazi zuen kimu hura, arbol eder bat bilakatu da.

ZIRTZIL3. Egun haundia hazi da !

ZIRTZIL4. Berriz bateratzeko eguna !

ZIRTZIL1. Momentu ederrago bat, azkarrago, handiago, ozenago, Ihidoyago, indartsuago, xiberotarrago :

ZIRTZIL1 / ZIRTZIL2 / ZIRTZIL3/ZIRTZIL4. (*oihukatuz*) Xebaxtian Ihidoy pastoralara !!

MUSIKARIAK : Euh... segur zirezte pastoralara bat egin nahi duzuela ? 4 zirezte bakarrik...

ZIRTZIL1 / 2 /3 /4 : Arrazoin du... Baina 35 urtez pertsonai ainitz izan dira gure antzerkitan. Bai Trouchoť, Sussaute, Kontrabandistak, Zaharrak eta haien erizainak, Xixon, apezak eta serorak, Camping, Zakariak Putxapal detektiboa...

Musika abiatzen da. Pastoralakakola bat abiatzen da. Aktoreek pastoralako bertsuak kantatzen dituzte.

1. Agur jaun andereak, istorioa bukatzera doa

Joan aintzin nahi ginuke, egin azken predikua

2. Pastorala amesturik, zihoan Xebaxtian zenak

Elgarrekin bete dezagun, gogoan zuen artistak

3. Pastoral bat Armendaritzen, Xebaxtian da sũjeta

Ez da manera hobeagorik, bururatzeko omenaldia

4. Baina egon zaizte trankil, ez du lau oren iraunen

Nano pastorala ondotik, guk mini pastorala eginen

5. Xebaxtian ezagutzen baduzue, ez zuen maite luzatzea

Sustut gero bazelarik, sekulako aperitifa

6. Beraz utziko dugu hor, pastorala aire hori

Hainbat aldiz errepikaturik buruko mina sartu baitzait, norbaitek ba ote du Doliprane bat.. edo bi ?

7. Halere joan aintzin publikoa eskertu behar dugu, beti horrela egiten baita,

Beraz milesker publikoa, ta barkatu Xiberoa

8. Barkatu ere egin izan diren, petto edo hutsentzat

Dena eman dugu gaur, bihar biharkoarentzat

9. Arrazoin duzu laguna, ez da batere errexa

Hitzak ikasi behar dira... (*testua ahanzten du*) lalalalalaxa

10. Ez dut uste Xebaxtianek, holako gauza amestu zuenik

Kakolkeria fini dezagun, ta joan giten hemendik

11. Sussaute eta Troughot-ren partez, milesker Xebastian

Nahiz eta sobera « x » « x » « x », dituen bere izenean

(*DENEK*) 11. Azkenean eskerrak, hiri Xebaxtian

Armendaritze antzerkiturik, segi dezagun bestan !

FINI


Antzerki testu hau Euskal kultur erakundearen web-atarian zintzilikatua izan da, egilearen baimenarekin, <http://antzerkit.eke.eus> helbidean, Iparraldeko euskarazko antzerki testuak biltzen dituen atal batean.

© Copyright lizentziapean zabaldua da.

Ondorioz, ezin zaio inolako aldaketarik ekarri egilearen baimenik gabe.

Ildo beretik, antzerkia publikoaren aitzinean eman nahi izanez gero, egilearen baimena eskuratu behar da derrigorrez (edota egilearen eskubideak kudeatzen dituen pertsona edo erakundearena).

Harremanetan sar daiteke zuzenenean berarekin edo Euskal kultur erakundearen bidez antzerkia@eke.eus helbidera idatziz.



antzerkit.eke.eus

Ce texte provient du recueil d'œuvres théâtrales en langue basque mises en ligne avec l'accord de leurs auteurs dans une rubrique du site de l'Institut culturel basque à l'adresse <http://antzerkit.eke.eus>.

Il est diffusé sous une licence © Copyright. De fait, aucune modification ne peut lui être apportée sans autorisation de l'auteur.ice.

De même, cette œuvre ne pourra être donnée en public qu'après avoir obtenu l'accord de l'auteur.ice (ou de la personne ou de l'organisme la représentant). Vous pouvez, à cette fin, le/la contacter directement ou obtenir ses coordonnées par le biais de l'Institut culturel basque en adressant un message à l'adresse antzerkia@eke.eus.